



Ortuguren etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Órtun



43° 11' 22"

2° 35' 15"

Berriz Iruditan / T. Angoitia

"... la casería rústica titulada Ortuguren... situada en la barriada de Andicono jurisdicción de la Anteglesia de Berriz, que comprende con su horno, basurero y antusanos ochenta y cinco y octavo estados, equivalentes a trescientos veinte y cuatro metros cuadrados de cabida, y la que se compone de una vivienda con piso bajo y alto..."

DJE 2/138 or. (1866)

Andikoako Goierrian kokatzen den baserri honen gaineko lehen aipua XVIII. mendean topatzen ditugu: *Ortuguren* (1727, BAHP, A965/32). Polizia-errodan ere forma bera aurkitzen dugu: *Ortuguren* (1825, PE/1825). Forma hori mantenduko da dokumentazioan gaur egun arte, salbuespen bi izan ezik, hots, *Hortuguren* (1867, JCR 2908/008) eta *Hortuguren* (1887, DJE, 5/ 231. or.), bertan h hizkiak agertzen baita idatzirik. Auzotarren artean, *Órtun* moduan ezagutzen da.

XVII. mendean sendotu zen tipologia eraikitako baserria da. Hiru gorputzez osatua dago: alboetakoak harrizkoak dira, eta erdian atartea dauka, egurrezko dintelduna. Beste askotan legez, alde bat zaharra da, eta kasu hone-

tan, ezkerreko parteari dagokio, estuagoa dena. Alde horretako fatxada nagusiko leihoa beste aldekoa baino txikiagoa da, eta hormetan, harlangaitzarekin batera, XVI. mendeko silarriak bereiz daitezke. Beheko solairuko leihoak harlanduzkoak badira ere, goikoetan egurrezko dintela erabili zuten. Aipatu berri ditugu harlandua eta harlangaitza material moduan, eta ohiko lekuetan ageri zaizkigu, hau da, kantaletan eta leiho batzuetan. Atarte gainean, osterata, tipikoa den egurrezko egitura dugu; adreilua, berriz, lehenengo solairuan, eta harria, azkenik, ganbaran. Isurki biko teilatua dauka, zeharo asimetrikoa dena, eskuman erantsitako gehigarriaren ondorioz. 2008. urtean gutziz eraberritu zuten.

toponimia

Leku izen honen osagaiak diren ortu eta guren oso interesgarriak dira hizkuntzaren historiaren aldetik. Latineko hortus hitzetik ortu hitza sortu zuen euskarak, eta huerto gaztelaniak, baina Mendebaldean baino ez da erabiltzen. Gainerako Euskal Herrian baratza baita erabiltzen den hitza. Guren, berriz, euskal hitz zaharra da eta "eder" esan nahi zuen. Hori bai, ortu batez ari garela edertasuna, seguruenik, beste modu baten ulertu behar dugu, oparitasuna.